

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzordearen 2021eko uztailaren 16ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez ekintzaileentzako laguntza ekonomikoaren deialdi publikoa egiten baita udalerrian enpresa txikiak jartzea sustatzeko**

DDBN(Identif.): 577744

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/577744>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Merkataritza jarduera Iruña Okan gauzatu eta sozietatearen egoitza Iruña Okan duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

#### **Bigarrena. Xedea**

Oinarri hauen xede da Iruña Okan txikizkako saltokiekin, turismoarekin, ostalaritzarekin, zerbitzuekin eta industriarekin zerikusia duten enpresa txikiak jartzea sustatzeko itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko irizpideak zehaztea eta prozedura arautzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2021eko uztailaren 26an eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honen zuzkidura 3.000,00 euro da.

#### **Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea**

2021eko abenduaren 31 arte.

Iruña Oka, 2021eko uztailaren 29a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**